

### **CCOO irakaskuntza**k LORPEN SINDIKALTZAT JO DU HEZKUNTZA-ITUNAREN EDUKIEN ALDAKETA, HASIERAKOA BAINO ADOSTASUN ASKOZ ERE ZABALAGOA GAITUZ

- **Sindikatuak ez du grebarekin aurrera jarraituko, deialdiaren helburu nagusia dagoeneko lortu dela uste baitu.**
- **Federazioak, hezkuntza itunaren inguruan ezberdinen artean lortutako adostasun maila altuak planteatutako mobilizazioen sekuentziazioa aldatzea defendatzen duela azpimarratu du. Ildo horretan, CCOO irakaskuntza eta gainerako indar sindikalek presioari eutsiko diote legea eraikitzeko prozesuan.**

Joan den ostiralean Legebiltzarrean gobernu-barneko indar nagusiek eta oposizioak euskal hezkuntza-lege berria idatzi aurreko akordio baten oinarri buruz sinatutako akordioek joan den astean beste sindikatuarekin batera deitutako mobilizazioen formatua birplanteatzeko gonbita egiten diote CCOO irakaskuntzari.

Aurreko astean iragarritako mobilizazio-formatua orain arte ezagutu den dokumentu bakarrean -XXI. mendeko hezkuntzarako oinarriak"- oinarritutakoa behar izan da, eta aipatutako dokumentua hezkuntza-eragile gehienek baztertu dutelarik, UGT sindikatuak ezik, egungo sistema zaharkituaren iraupena bermatzen bait zuen; honek hezkuntza publikoa nabarmen alde batera uzten du, eskola-segregazioko arazo oso larria du, eta emaitza akademikoak nabarmen okertzen ari dira, eta ziurgabetasuna sortzen ari da hezkuntza-komunitateko sektore guztietan, baita mota guztietako ikastetxeetako langileen artean ere.

Jatorrizko dokumentu kaskarrari buruzko aldaketak eta akordioak agerikoak eta argiak dira, eta oraindik dokumentu publikorik ez dagoen arren, ezagutzen dugu eskola publikoa ardatz duen hezkuntzaren aldeko apustua jasotzen dela, horretarako

baliabideak nabarmen handituz, eskola-segregazioa kontrolatzeko neurri eta konpromiso zehatzekin. Horrez gain, itunpeko eskoletan kontrol irmoa ezartzen du itunak, eta hainbat konpromiso hartu beharko du eskola bakoitzak bere gain finantzaketa publikoa jaso ahal izateko, besteak beste, jasotako finantzaketaren kontrol zorrotza, matrikulazio-prozesua administrazio publikoaren plangintzapean eta leihatila bakarrean egitea, irakaskuntzagatiko kuotak erabat kentzea, eta jarduera osagarriengatiko kuotak eta kobrantzak onartzea eta argitaratzea onartu beharko du. Hori guztia, eskarian oinarritutako plazen finantzazioa argi eta garbi doituta, gain-  
eskaintza saihestuz.

Akordioak euskarazko irakaskuntza eredu eleaniztun baten ardatz egituratzaile gisa ezartzen du. Eredu horrek, ikastetxe bakoitzaren ingurune soziolinguistikoetara egokituz eta hizkuntza-proiektuaren autonomia erabiliz, gure erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan gaitasun aurreratua izatea du helburu, baita atzerriko hizkuntza batean gaitasun nahikoa izatea ere. Azkenik, lan-postuei dagokienez langileen egoera sendotzeko eta egonkortzeko prozesuak bermatzen ditu eta ikastetxe publiko batean plaza izatea bermatzeko politika ere izango da, hala nahi duten familia guztientzat.

Aldaketa guzti horiek itunaren edukia sindikatu honen aldarrikapenetara hurbiltzen dute argi eta garbi, baina alderdi batzuk praktikan jartzeko modua ez dela zehazten antzematen da oraindik, eta konkrezio falta honek sistema publiko-pribatuaren dualtasunaren eta hizkuntza-proiektuen oreka eta eraginkortasunaren arloan oztopo eta zailtasun ugari ekarriko du.

Baina, dena den, lege hau sortzeko orduan sindikatuen parte-hartze aktiboari bere lekua egiteko borondate falta nabarmena da; izan ere, euskal hezkuntza osoko langileen ordezkari hautetsi eta legitimoak gara, eta, oso modu esanguratsuan, hezkuntza-itunaren hasierako proiektua arbuizatzeko espazio komun bat aurkitu dugu. Guzti hori dela eta, esandakoak CCOO irakaskuntza ELA, LAB eta Steilas-ekin negoziatzen jarraitzera mugitzen gaitu, oraingo honetan greba ez den formatuak erabiliz, euskal hezkuntza-lege berria idazteko prozesu luze honetan ikastetxeetako langileen iritzia eta eskarmentua kontuan hartzeko, eta, horrela, gero eta hurbilago dugun lege berri honetan, hezkuntza-komunitateko pertsona guztien onerako eragitea lortzeko.

**Bilbon, 2022ko martxoaren 21ean ·intersindikalean· | CCOO irakaskuntza**

**Araba** ☎ 945 131 322  
irakaskuntzaara@ccoo.eus  
Castilla, 50, 01007 **Vitoria-Gasteiz**

**Bizkaia** ☎ 944 243 424  
irakaskuntzabiz@ccoo.eus  
Uribitarte, 4, 48001 **Bilbao**

**Gipuzkoa** ☎ 943 470 399  
irakaskuntzagip@ccoo.eus  
Karlos I, 1-3, 20011 **Donostia**